BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1721

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 27koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programan araututako 2013ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia (Gaitek Programa) argitaratzen duen 2012ko azaroaren 14ko Ebazpenean egindako bigarren aldaketa.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduak –Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko abenduaren 23ko Aginduak aldatutakoak– produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa arautzen du, Gaitek programa.

Aipatutako agindu horren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak 2012ko azaroaren 14an ebazpen bat eman zuen, zeinen bidez argitara ematen baitzen produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programan araututako 2013ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia (Gaitek programa); ebazpen hori 2012ko abenduaren 28ko EHAAn argitaratu zen, 251. zenbakian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Finantza Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduarekin bat etorriz, azaroaren 14ko ebazpen horren arabera, laguntzak eman ahal izateko behar besteko kreditua egon behar zen Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorretan.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorretan azkenean ontzat hartzen den kreditua 2012ko azaroaren 14ko Ebazpenaren 1. artikuluan aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa bada, hau da, 37.900.000 eurotik beherakoa, kreditu hori aldatu beharra dago, dagoen zenbatekora egokitzeko. Halakorik gertatzen bada, horren berri eman beharko da, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Azaldutako guztiagatik, eta produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programarako (Gaitek programa) 2012ko azaroaren 14ko Ebazpenean aurreikusitako zenbatekoa dagoen zenbatekora egokitze aldera, eta aipatutako aginduan ezarritako ahalmenez baliaturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatu egiten da Produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programan (Gaitek programa) araututako 2013ko ekitaldiko laguntzak emateko deialdia argitara ematen duen 2012ko azaroaren 14ko Ebazpenaren 1. artikuluko 2. paragrafoa, zein honela idatzita geratuko baita:

«2.– Programa hori finantzatzeko, 23.969.286 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kontura.

Deialdi honi lotuta emango diren laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, ez eta, indarrean dagoen legeriari jarraituz kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, prozedura ebatzi aurretik kopuru hori handitzearen ondorioz

sortutako diru-kopurutik gorakoa ere. Halako egoerarik gertatuz gero, horren berri jakinarazi behar da Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpen bidez. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak Gaitek programa hau finantzatzen laguntzen du».

Bigarren artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 27a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.